

# B

BARREN

TOKIKOM

# Uztailaren 1etik botikak garestiago



# UZTAILEKO PROMOZIO BEREZIA

Presta zaitez oporretarako, eta itzuleran jarraitu zeure burua zaintzen

**2** gorputz pelling laranja goxo azalarekin  
**+ 2** aurpegi eta gorputz hidratazio tratamendu  
**+ 4** presoterapia tratamendu

**DENA 90** eurotan

Erreserba itzazu uztailero eta iraileko txandak

## Cristina Garcia

Estetika eta Terapia Naturalak

Errosario kalea 19 

943 74 29 50 · cgestetika@gmail.com

Astelehenetik ostiralera

9:30etatik 13:00tara - 15:00etatik 19:30tara

Larunbata

10:00etatik 13:00tara



# Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataro lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi [gertu@tokikom.com](mailto:gertu@tokikom.com) helbidera eta hitz egingo dugul

**TOKIKOM**

TOKIKO  
KOMUNIKABIDEEN  
BATERAGUNEA

	Aikor	Barren			
	Aikor.com	Elgoibarren.net	28 kanala		
	Anboto	Baleike	Karkara		
	Anboto.org	Baleike.com	Karkara.com	Txintxarri.info	
Hirinet.net	Goiena Papera	Erla telebista	Antxeta irratia	Aiurri	
Berton	Goiena.net	Uztarria	Hernaniko Kronika	Aiurri.com	Xorroxin irratia
Bilbo Hiria irratia	Goiena telebista	Uztarria.com	Kronika.net	Ttipi-Itapa	Guaixe
Prest!	Pil-pilean	Goierri telebista	Noaua!	Ttipi.net	Guaixe.net
Uk	Plaenxia.com	Galtzaundi	Noaua.com	Xaloe telebista	Beleixe irratia
Ukberri.net		Galtzaundi.com	Txintxarri	Mailope	Euskal Herria irratia





Inma  
Mugertza

Kaixo, Ander! Azkenean heldu zaigu guri ere gure hikamikak plazaratzeko garaia. Bertigo pixka bat ematen du, ezta? Baina ezin norberaren iritzia zabalatzeko aukerari ezeztzik esan. Hortaz, BARRENI eskerrak eman behar emandako aukera paregabeagatik.



Ander  
Izagirre

Iepa, Inma! Bertigo pixka bat? Pixka bat baino gehiago esango nuke nik. Pentsa, BARRENEKOEI pentsatu beharra neukala esateraino iritsi nintzen deitu zidatenean! Baina ezin ezetzik esan eta zuk diozun bezala, eskerrak ematea tokatzen zaigu, batez ere gurekin gogoratzegatik.

Badira gutxienez hiru urte lehen aldiz aurrez-aurre egin genuela topo, gogoratzen? Gazteen lokal bat sortzearen inguruko bileretako bat zen. Bigarren aldía iaz izan zen, Aranzadik Lezon antolatutako Jaizkibelen balio geologiko, biologikoari eta kulturari buruzko sinposioan. Zu narrasti interesgarri bati buruzko posterra aurkeztera etorri zinen, eta ni Jaizkibekek gordetzen dituen lurrazpiko uren berri ematera. Berezia izan zen gu bion topaketa Lezon, ezta? Bi elgoibartar, ingurumen zientzietan lizentziatua bata eta geologoa bestea, Jaizkibelgo bi altxorrei buruzko berri ematen.

### “Ohikoak dira prentsan ingurumenari buruzko berriak, baina gehienetan berri txarrak”

BARRENI idazteko aukera eman zitzaigunean zalantzak piztu zitzaizkigun; zertaz idatziko ote genuen, erronkari aurre egiteko gai izango ote ginen, etab. Bizpauru e-mail ere partekatu genituen batak bestearen ikuskera jasotzeko. Hausnarketa ez oso sakon baten ondoren, ingurumena nahikoa gai emankorra dela ondorioztatu genuen txoko honetatik esperientziak emandako gure iritziaz barreiatzeko. Ohikoak dira prentsan ingurumenari buruzko berriak, eta ados egongo zara nirekin berri txarrak direla gehienetan, ingurumenari eragiten zaizkion kalteak kontuan izanik behinik behin, ez da hala?

Zure blogean esaten duzun legez, begiak zabalik eduki ezker, naturak beti eskainiko digu sorpresaren bat eta ingurumenaren kontrako tratu txarrak direla eta, maiz izango dugu gaiari txinpartak ateratzeko aukera.

Gogoan dut, bai, elkar ezagutu genuen eguna. Eta nola ez, Jaizkibelen inguruko sinposioa. Arlo batetik zein bestetik begiratu, Jaizkibekek izugarriko balioa duela ezagutarazteko balio izan zuen, eta gu biok ere han izan ginen, gure ekarpenak egiten. Bide batez, esan beharra daukat, aipatzen duzun narrasti berezi horren posterrean nire ize-na agertzea Elgoibarren aurkitutako espezie horretako narrastiei zor diedala, altxor hori gure herrian bertan daukagu-eta! Berezia izan zen gure topaketa, baina, era berean, oso aberasgarria. Ez da ba aberasgarria bi arlo desberdinen inguruko ezagutzak elkar partekatzea?

### “Naturak sorpresa on ugari ere erakusten dizkigula ezin ahaztu”

Gogoratzen ditut idazteko proposatu zigutenean izandako hasierako zalantzak. Izan ere, zu geologoa izanik eta lurrazpiko uren inguruan lan egiten duena, eta ni, berriz, ingurumen zientzietan lizentziatua eta animalietan zaletua, zeri buruz hitz egin behar genuen ba? Esaten duzun bezala, ingurumenak hainbat eta hainbat konturi buruz idazteko aukera eskaintzen digu eta ados nago zurekin, tamalez, berri txarrak izaten dira gehien jasotzen ditugunak.

Hala ere, amaieran erabiltzen dituzun nire hitzak aprobetxatuz, naturak sorpresa on ugari ere erakusten dizkigula ezin ahaztu eta honen inguruan ere izango dugu zer esan.

#### I. URTEURRENA



### ALFONSO ARRILLAGA GONZALEZ-DUEÑAS

2012ko uztailaren 4an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.



# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argotia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argotia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50  
KULTUR ELKARTEA

## Laguntzaileak:



elgoibar  
biZi-biZiXal



Gipuzkoako Foru Aldundia



## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Aita santuak esana

Gaur egungo errealitatean ondo baino hobeto datorren esaldi bat ekarri nahi nuke gogorra. Juan XXIII aita santuak 1962. urtean esandakoa da: *“Emigrantes, os aconsejo respetar la cultura y costumbres y aprender el idioma del país en el que váis a vivir”*. Horixe esango nieke Euskal Herrira datozenei, eta gauza bera, Euskal Herritik kanpora joaten direnei. Aukeratu duten herrialdeko kultura eta ohiturak errespetatzeko, eta hango hizkuntza ikasteko.

P. A. ©

## ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: “Ikastolako irakasleak”, esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferenziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Elgoibarko San Joan suak hobeto antolatu behar dira:** "San Joan bezpera egunean Santa Ana kale-  
ra joan ginen umeekin, San Joan suak ikustera, eta pena ikaragarria hartu genuen. Supazterrak edonon piztuta zeuden, eta umeak inongo kontrolik gabe mugitzen ziren alde batetik bestera. Arrisku handia zegoela iruditu zitzaigun, eta harrigarriena inork minik ez hartu izana izan zen. Elgoibar bezalako herri batean San Joan gaua hobeto antolatu beharko litzatekeela iruditzen zaigu".



**Zergatik ixten dute herriko erdigunea trafikoarentzat?**

"Osasun Zentro aurrean errepidea konpontzen dihardute, eta autoentzako bidea itxita dago. 11:00ak arte

San Frantzisko kaletik sartu daitezke autoak, baina ordu horretatik aurrera bidea itxi egiten dute. Plaza Txikiko aparkalekua erdi hutsik egoten da, eta hortik gorako kaleetan ez da aparkatzeko lekurik egoten. San Frantzisko kalea zabalik egon beharko litzateke, autoak Plaza Txiki ingurura sartu ahal izateko". Kexa honen harira, **BARRENEK** Hirigintza arduradunarekin hitz egin du, eta hark esan du herritarren segurtasunagatik hartutako neurria dela. Herrigunean ume asko ibiltzen dira, eta autoak etengabe atzera eta aurrera ibiltzea arriskutsua izan daitekeela adierazi du Ricardo Garaitek. Dena dela, herrigunera autoz sartzeko beharra duenak Maa-lako txirrina jo eta udaltzainek irekiko diotela esan du.



**Txalo bero bat Altolako Bidubi taldeari:**

"Txalo bero bat eman nahi diegu Altolako Bidubi taldekoei, oztopo guztien gainetik San Joan sua piztu zutelako. Azkenean San Joan bezpera eguna ospatu genuen Atzolan. Aupa koadrila!".



**I. URTEURRENA**  
2012ko uztailaren 1ean hil zen

## FELISA ZUBIAURRE BILBAO

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko*



## Gaur bukatuko da Elgoibarko pintxo lehiaketa

Aurten 25 tabernak hartu dute parte

**M**artitzen arratsaldean hasi zen Elgoibarko pintxo lehiaketa, eta gaur bukatuko da. Oraindik pintxo-rik probatu ez dutenek, 22:00ak arte izango dute lehiaketarako espreski prestatutako mokadu txiki horiek dastatzeko aukera. Aurten 25 tabernak hartu dute parte.

Sari banaketa boto guztiak zenbatu ostean egingo dute, baina horretarako egun batzuk beharko dituzte antolatzaileek. Hiru sari banatuko dituzte: epaimahaiaren saria, Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko pintxo onenaren saria eta herritarren saria. Botoa ematen duten guztien artean bi lagunentzako dastatze menua zozkatuko dute.



## Hasi dute Pedro Migel Urruzuno kalea urbanizatzeko obren bigarren fasea

Hasi dute Pedro Migel Urruzuno kalea urbanizatzeko obren bigarren fasea, eta arduradunek esandakoaren arabera, San Bartolome jaietarako bukatuko dute. Asfaltoa berritu, eta oinezkoentzako itxura emango diote kaleari. 129.603 euroko aurrekontua dute lan horiek.

## 230 ume eta 32 hezitzaile, Elgoibarko Izarraren udalekuetan

Astehenean hasi ziren Elgoibarko Izarraren udalekuak, eta aurten, iaz baino 26 ume gehiagok eman dute izena. Guztira, 230 ume dabilta udalekuetan, eta 32 hezitzaile daude horien arduran. San Fermin Txiki Eguna (uztailaren 5ean), Flahsmob grabaketa (uztailaren 8) Umeentzako Txiki Eguna (uztailaren 22an) eta koskortuenentzako Zirkuaren Eguna antolatu dituzte, besteak beste. Horrekin batera, herriko txoko ezberdinetara irteerak egingo dituzte ia egunero, eta, baita inguruko herrietara ere.





## Izena **Patxi Garcia**



Patxi Garcia elgoibartarra aukeratu dute presidenteorde Mensa supergaituen erakunde-an, eta erakundeak duen nazioarteko zuzendaritza batzordeko kide ere izango da aurrerantzean. Supergaitu edo talentu aparteko pertsonak batzen dituen nazioarteko elkarte handiena da Mensa. 1946an sortu zuten elkarte, Ingalaterran, eta gaur egun, 110.000 bazkide baino gehiago ditu munduko bost kontinenteetan. Espainiako Mensa, berriz, 1984an sortu zuten eta 1.500dik gora bazkide dauzka.

Francisco Javier Garcia (Elgoibar, 1962) duela hamar urte sartu zen Mensan, baina orain arte isilean mantendu du: “Gertukoenek bakarrik zekiten Mensako kide nintzela”, esan du. Adimen-koziente altua izan zezakeenaren lehen zantzuak 12 urterekin bistaratu zitzaizkion, ikastetxean egin zizkieten froga batzuen bidez. Urte batzuk geroago, nazioarteko enpresa baterako lanean hasi zenean, zuzendari guztiei egin zizkieten froga batzuetan baieztatu zen eskola garaian eginiko froga haien emaitza zuzena zela, eta orduan jaso zuen Mensan sartzeko eskaria.

## Egitasmoa **Oin Alai**

Ireki dute Elgoibarko Udalak, Ikastolak eta Herri Eskolak sustatutako Oin Alai egitasmorako izenemate epea. Oraingoan, 35 ikaslek (22 Ikastolan, eta hamahiru Herri Eskolan) eta bederlatzi boluntariok (sei Ikastolan, eta hiru Herri Eskolan) eman dute izena, eta kopuru horiek handitu ezean, ekimena bertan behera gelditzeko arriskua dago. Udal arduradunen esanetan, hori “tamalgarria” litzateke, beraz, herritarrak animatu nahi ditu egitasmoan parte hartzera. Interesatuak ikastetxean bertan eman dezakete izena, ikasturtea hasi aurretik. Udalak, bestalde, Txankakuako establezimenduetan gastatzeko sei erosketarekin txeketa zozketatu ditu egitasmoan parte hartzen duten helduen artean. Hauek dira sari-tuak: Aitor Zabaleta, Xabi Bastida, Montse Arregi, Miren Jone Arriola, Jose Angel Zabala eta Yolanda Alvarez.



## ‘**Dolmenen Ibilbidea**’ ezagutzeko bisita gidatuak eta famili-tailerrak

Karakate eta Irukurutzeta mendilerroan dagoen *Dolmenen Ibilbidea* sustatzeko asmoz, ibilbide gidatuak eta familian egiteko tailerrak antolatu ditu Debege-sak. Bisita gidatuak ondorengo egunetan izango dira: ekainak 30 (euskaraz), abuztuak 11 (gaztelaniaz), irailak 22 (gaztelaniaz) eta urriak 20 (euskaraz). Irteerak Karakateko aparkalekuan hasiko dituzte. Familia tailerrak, berriz, uztailearen 21ean (euskaraz) eta irailaren 6an (gaztelaniaz) izango dira. Izena emateko: 943 191 172 edo 695 783 656.

## **Sanferminetako entzierroak zuzenean**

Sanferminetako entzierroak zuzenean emango ditu Udalak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan emango dituzte, uztailearen 7tik 14ra bitartean, 8:00etatik aurrera.

## **Salamancara bidaia antolatu du Jubilatuen Egoitzak**

Jubilatuen Egoitzak hiru eguneko bidaia antolatu du Salamancara. Uztailearen 3tik 5era bitartean, Alberca herri inguruak ezagutzeko aukera izango dute, eta Frantziako Peñara eta Mogarrazera bisita gidatuak egingo dituzte. Abadia de los Templarios hotelean hartuko dute ostatu, pentsio osoan. Logela bikoitzean 130 euro ordaindu beharko ditu bakoitzak, eta ohe bakarreko logela nahi duenak 170 euro ordaindu beharko ditu. Informazio gehiago, Jubilatuen Egoitzan.

## **IMSERSOren oporraldian izena emateko epea zabalik**

IMSERSOren opor egitasmoan izena emateko epea uztailearen 12an bukatuko da. Interesatuak Ongizate Sailean edo Jubilatuen Egoitzan jaso dezakete izenemate orria.

# METALGINTZAKO AKORDIOAK, GALTZEAR



Espainiako Lan Erreformatik gaur arteko negoziazio kolektiboaren eredia aldatzeko bidea eman du, baita metalgintza sektorean ere, langile gehien batzen dituen sektorean [Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian 100.000 behargin baino gehiagoren baldintzak ezartzen dituzte metalgintzako hitzarmenek, eta enpresa txiki askorentzat erreferentziakoak dira]. Gipuzkoako metalgintzan, 2010ekoa da azkeneko sektoreko hitzarmena, baina lan erreformaren ondorioz, uztailearen 7an bertan behera geldituko dira urtebete baino gehiago sinatu gabe daramatzaten hitzarmenak. Ondorioz, hilaren 8tik aurrera, enpresetan estatuko hitzarmena ezarri ahal izango dute, eta horrelakorik ezean, Langileen Estatutua. Eta horregatik, eguna gerturatu ahala, protestak ugartu egin dira. Giro horretan, langileak eta ugabazabak ez ezik, langileak eurak ere jarri dira zenbaitetan aurrez aurre. Sindikatu etako ordezkariak ulertzen dute langile asko “etsita eta aspertuta” egotea horrenbeste lanuzterekin, baina aurrera egiteko bide bakarra borroka dela ohartarazi dute.

Ainara Argoitia

**K**apitalak inoiz ez du ezer oparitu. Lan baldintza onak baldin baditugu gogor borrokatu dugulako da. Eta lortutakoari eusteko bidea ere borroka da, patronalak ez baitu atzaparririk mugituko langileen alde. Kolpeak jaso eta jaso ari garenean ezin gara negoziatzera eskua luzatuta joan”. ELAko Oscar Mororen hitzak dira, baina tonu bere-

an jardun da Jon Iparragirre LABeko ordezkaria ere. Gipuzkoako metalgintza sektorean %73a dute bi sindikatuok [%43 ELAK, eta %30 LABek], eta bataren eta bestearen diskurtsoan alderik baden arren, oinarrian bat datoz: Espainiako Lan Erreformatik “prekarietatea” sustatzen du, langileak “gutxietsi” eta “hondoratu” egiten ditu. “Orain arte legeak bete duen eginkizuna baztertu dute: enpre-

sarien eta langileen arteko harreman desorekatuan alderik ahulena babestea”, dio ELAK, bere azkeneko idatzian. Sindikatuak diote legegia berriaz probesten ari dela Adegik, negoziazio sektoriala tratatzeko, baina patronala ez dator bat. “Hitz hutsak baino ez dira horiek, zehaztasun gabeko hitzak, errealitatearekin bat ez datozenak. Adegik negoziazio kolektiboa tratatu nahiko balu, nahikoa luke





Oskar Moro  
ELA

'zoritzarreko' eguna [uztailaren 7az ari da] iritsi zain egotearekin", dio Juan Ramon Apezetxea Adegiko Lan-harremanetarako zuzendariak, *Hitzarmenak Gipuzkoan, agur?* artikuluan [BARRENEN saiatu da berarekin hitz egiten, baina ez du erantzunik jaso].

2010ean sinatu zuten Gipuzkoako metalean orain indarrean dagoen lan hitzarmena, zazpi greba egunen ostean. Sindikatuen arabera, "jarrera atzerakoiarekin" jarri zen mahaian Adegik. "Hitzarmeneko 22 artikulua ezabatu nahi izan zituen. Hitzarmenaren atzera eragina mugatu, malgutasuna handitu eta langileen lan-baldintzak erregulatu eta estutu". Apezetxeak ez dio halakorik. Bere esanetan, Adegik egin du ahalegina negoziazioetan, eta aurrera begira alde bien arteko konfiantza ezinbestekoa izango dela esan du. "Gipuzkoako metaleko hitzarmena orain dagoen horretan onartuko balitz, soldatak izoztuta ere, estatuko hitzarmen onena izaten jarraituko luke hamabost urte barru ere", dio idatzian. Sindikatuen interesa zein den galdeztzen du Apezetxeak: "Zein onura dakar langileentzat oraingoz hobekuntzarik jaso ez arren gaurko lan baldintzak mantentzea suposatuko lukeen hitzarmena ez sinatzeak? Uste dut langileak ziur daudela gaurko lan baldintzei eustea gerta dakiekeen onena dela. Zergatik ez dute hori ulertzen langileen ordezkariak?". Lanaldi murrizketak eta soldata igoera "neu-

## "Lortutakoari eusteko bidea borroka da. Patronalak ez du atzapar bat mugituko"

rrigabeak" eskatzea leporatu die Adegik sindikatuei, eta horiekin enpresen iraupena kolokan jartzea.

### Atzera begirakoa

Aspalditik datorren kontua da hau. Uztailaren 7a dute denek begiz jota, baina egun horren erabakigarritasuna ulertzeko 2012ko otsailera egin behar da atzera. Iazko otsailaren 10ean Ministroen Kontseiluak dekretu bidez onartu zuen lan erreforma, eta bi egun geroago jarri zuten indarrean. 85 emendakin gehitu zizkieten gero Parlamentuan, eta aurrera egin zuen, PP, CiU, UPN eta Foro Asuriaskoen botoekin [Aurka bozkatu zutenen artean daude PSOE, Ezker Anitza, EAJ eta UPD]. Nolanahi ere, Gipuzkoako metalgintzan 2010ean azken hitzarmena sinatu zutenetik hona, beste erreforma batzuk ere izan dira. 2010ean, Jose Luis Rodriguez Zapateroren agintaldian, izan zen lehenengo. Zapaterok negoziazio kolektiboa Madrilen zentralizatu zuen. Lurraldeko hitzarmenaren eta enpresetakoaren gainetik, estatu hitzarmena lehenetsi zuen eta ordura arte ez zituen eskumen asko aitortu zizkion. Gero, abenduan Espainiako presidentetzara iritsi eta bat, eta hitzarmenaren negoziazio fasea bete-betean zela, erreforma gogorragoa proposatu zuen Mariano Raxoik: Espainiako Lan Erreforma. "Kaleratzeak merkatu zituzten, langileen lan-baldintzak nabarmen okertu eta ordura arteko negoziazio kolektiboaren ereduak goitik behera aldatu", dio Morok.

### Negoizazio kolektiboaren orain arteko ereduak

Lau zutabe nagusi ziren orain artekoan.

1) **Oinarizko esparru juridikoa.** Langileen Estatutuan oinarritzen da, eta legez bete be-

harreko gutxieneko eta ezinbesteko edukia arautzen du. Hor zehazten da, esate baterako, lanbide arteko gutxieneko soldata. Berez, inork ezin du zehaztutako horren azpitik ko-bratu.

2) Egon zitezkeen baita **estatu-hitzarmenak**, baina sekula ezin zuten oinarizko esparru juridikoan zehaztutakoa baino eduki gutxiago jaso. Hau da: gutxienez oinarizko esparru juridikoan esandakoa bete behar zuten.

3) **Autonomia-erkidegoetako hitzarmenak** ere egon zitezkeen, baina beti ere aurreko bietan zehaztutakoa hobetu behar zuten.

4) **Lurralde hitzarmenak** ere bazeuden, eta Gipuzkoako kasuan hauxe izan da orain arte langileen ordezkarien erreferentziazko hitzarmena, bai metalean eta baita beste sektore askotan ere. Orain arte ez da estatu mailako hitzarmenik egon ezta autonomia erkidegokorik ere. Oinarizko esparru juridikoan zehaztutakoa izaten zen hemen betebeharreko gutxienekoa, eta hori hobetzera zeterren gero lurraldeko hitzarmena. Gero, negoziatorako antolatze gaitasuna zuten enpresetan, enpresa akordio bidez hobetzen zuten hori.

2012ko otsailaz geroztik, baina, orain arteko eredu hori galtzear dago, hitzarmen probintzialei balioa kentzen dielako. Batetik, Espainiako Gobernuak aukera duelako lurral-

Jon Iparragirre  
LAB



"Enpresaz enpresa negoziatzeak patronalari egiten dio mesede"

de hitzarmenetan zer jaso daitekeen eta zer ez zehazteko. Hau da, estatu hitzarmenak zehaztuko du lurralde hitzarmenean zer negoziatzea daitekeen. Bestetik, enpresa hitzarmenak lehenesten direlako. “Beraz, enpresa akordio batzuetan zehaztu daitezke gutxienekoak baino soldata apalagoak, eta orain arte hemen negoziatzen ziren gai batzuk gerra daitezke orain estatuko hitzarmenean negoziatzeko. Adibidez, esan dezakete ordutegi-malgutasuna estatuko hitzarmenak arautuko duela”, azaldu du Morok. Bat dator Iparragirre ere. “Piramideari buelta eman zaio. Orain, enpresako hitzarmen batekin okertu daitezke herrialdekoa. Metaleko herrialdeko hitzarmenak dio langile batek 1.697 lanordu bete behar dituela urtean. Bada, enpresako akordio bat izenpetuta, igo dezakete kopuru hori. Era berean, metaleko hitzarmenak dio peoi espezializatu batek [sektorean gutxi kobratzen dutenak dira] urtean 23.000 euro irabazten dituela. Bada, orain hori okertu daiteke, enpresa hitzarmen bat adostuta”.

### Mobilizazio egutegia

Mobilizatzeko arrazoietan bat datoz sindikatuak, baina desadostasunak ere agerian gelditu dira metaleko negoziazioetan. Nork bere talaiatik begiratzen du, eta nork bere proposamenak ditu. ELAk dio hitzarmen probintzialaren alde borrokatzen duela, baina garbi izanda balio duen bakarra erreformaren kontrako klausuladun enpresa akordioa dela. LABek, berriz, sinisten du oraindik herrialdeko hitzarmenean. Lurzoru minimoa herrialdeko hitzarmena izan behar dela uste dute, eta hor arautu behar direla sektoreko langile guz-

*ELAk deituta Bilbon egindako manifestazio bateko irudia.*



*LABeko, CCOOko eta UGTko ordezkariak Donostian egindako elkarretaratzea.*

tien gutxieneko baldintzak. “Negoziatetan enpresaz enpresa joateak patronalari bakarrik egiten dio mesede, ez dugulako sinergiarik eta kohesiorik lortzen langileen artean. Ez da berdina Adegiren kontra bakarka joan edo metaleko langile guztiok batera. Gainera, zer gertatzen da sei langiletik beherako enpresetan, ordezkaritza sindikalik ez duten horietan?. Ez da bakoitzak ahal duen moduan ateratzeko unea”, azaldu du Iparragirrek. Azken asteotan CCOO eta UGTekin elkar hartuta aritu da LAB [Hiruren artean langileen %50 baino gehiago ordezkatzeko Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian]. ELA, berriz, aliantza horretatik kanpo geratu da. LABek, CCOOk eta UGTk prestatu duten proposamen bate-ratuan lau dira eskaera nagusiak: aurreko hitzarmenetako baldintzei eustea, KPlaren araberako soldata igotzea, hiru urteko ultraaktibitatea, eta hitzarmena blindatzeko klausula jasotzea.

Egoera horretan, mobilizazio egutegietan ere ez dira beti ados jarri, eta onartu dute langile askoren purrustadak entzun dituztela hori dela eta ez dela. Horren harira, aitortu dute ulertzen dutela langileak “erreta” egotea ho-

rrenbeste lanuzte eta mobilizazioekin, azken batean langileak eurak direlako kaltetuenak, baina euren ustez, borroka da patronalari aurre egiteko bide bakarra. “Krisiaren errudun langileak egin nahi ditu patronalak, baina krisi hori ez dute langileek sortu, finantza erakundeek baizik. Nola eska diezaiokete orain langile bati inplikazioa, bere lan baldintzak prekarizatzen ari badira? Nola eskatuko zaie langileei inplikazioa produktuari balioa eman eta lehiakor egiteko, benetako apustua etengabeko prestakuntzarik ez izatea eta behin-behinekotasuna saritzen duen erreformaren aldekoa bada?”, esan du Jon Iparragirrek.

### Greben inguruko balorazioa

Greben izan duten jarraipenez galde-tuta ere, orohar onartu dute azkeneko greba orokorrak gure eskualdean ez duela beste zenbait lekutan besteko oihartzunik izan, baina positiboan egin dute balorazioa. Bestera pentsatzen du patronalak. Greben ez dutela ezer konpontzen esan du behin baino gehiagotan Pello Gibelalde Adegiko presidentek: “Konfrontazioaz aparte ez diete ekarpen positiborik egiten enpresei, langileei, familiei ezta gizarteari ere, eta enpresak mantentzearen edo zultura joatearen artean erabaki behar dute langileek”. Uztailaren 7tik aurrerakoak hitz egin zuten martitzenean Kursaalaren, enpresarietako eta patronalak izan duten kongresuan. Uztailaren 7a momentu historikotzat jo zuen. Bere ustez, lan erreformak unean uneko egoerara moldatzeko aukera emango die enpresei. “Aurrerantzean enpresek ez dituzte eskuak eta hankak lotuta izango lan hitzarmen zurrunegien aurrean”. Antzeko hitzak egin zituen Miguel Aiertza Adegiko idazkari nagusiak ere. Lan erreforma lehiakortasuna berreskuratzeko tresna izan daitekeela esan zuen.





Elgoibar

## San Joan sua, txar guztiak uxatu eta udari ongietorria egiteko aitzakia

Usadio zaharra jarraituz, San Joan suaren bueltan batu ziren elgoibartar eta mendaroar asko domekan. Elgoibarren, Santa Ana kalearen amaieran, Goiko Errota zubiaren ondoan, piztu zituzten suak, eta Mendaron, Herriko Enparantzan. Aurten jairik ospatu ez duten arren, Altzolan ere piztu zuten san joan sua, baita gure inguruko baserri askotan ere. Eta halaxe, argazkiotan ikus daitekeen moduan, suaren gainetik saltoka egin zioten ongietorria askok eta askok udari, eta bide batez, udako jaiiei.



Elgoibar



Mendaro



Elgoibar



Mendaro



Elgoibar



Mendaro



# Badator berrordainketa

**Uztailaren 1etik aurrera Arabako, Bizkai-ko eta Gipuzkoako herritarrek gehiago ordaindu beharko dute botikengatik. Espainiako Gobernuak 2012an onartu zuen lege dekretu hori, baina Eusko Jaurlaritza kontra azaldu zen hasieratik, eta lortu du lege dekretuaren aplikazioa urtebetez luzatzea. Horretarako, besteak beste, berrordainketari aurre egiteko dekretua baliatu zuen. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak, baina, baliogabetu egin du Jaurlaritzaren dekretua, eta berrordainketa ezartzera derrigortu du. Datorren astelehenean jarriko da indarrean lege dekretu berria.**

Ainhoa Andonegi

**A**stelehenetik aurrera garestiago izango dira botikak. Espainiako Gobernuaren 16/2012 Errege Lege Dekretua martxan jartzeak pentsiodunengan eragingo du, batez ere. Espainiako Gobernuak dekretu hori onartu aurretik zergen bidez ordaintzen zituzten botikak herritarrek, eta orain farmazian bertan botikaren %10 ordaindu beharko dute. Dena den, dekretuak berak hilabeteko gehieneko muga batzuk zehazten ditu, pentsiodunen diru sarreraren arabera. Hau da, kopuru batetik gora ez dute gehiago ordaindu beharko. Kopuru hori 8,14 eurotik 61,08 eurora artekoa da, diru sarreraren arabera. Muga horiek kontrolatzeko ezinbestekoa izango da botikak erosterakoan Osakidetzako txartela erakustea, horrek emango baitio botikariari bezero bakoitzak ordaindutakoaren berri. Txartelik erakutsi ezean, botika bakoitzari aplikatu zaio %10a. Langile aktiboen kasuan, berriz, botiken %40 ordaintzetik %50 edo %60 ordaintzera pasatuko dira, bakoitzaren errentaren arabera.

Pentsiodunek farmazian ordaindu beharko badute ere, herritar batzuk botikak ordaintzeaz salbuetsita egongo dira. Horien artean daude, besteak beste, droga menpekotasuna duten pertsonak eta ezintasunen bat dutenak. Horiez gain, gizarteratze errentak edo kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituztenek ez dute

botiken truke ordainduko, ezta langabezia saria jasotzeko eskubidea galdu duten langabeek ere—egoera horretan dauden bitartean—. Azkenik, lan-istripu edo gaitz baten ondorioz hartu beharreko botikak ez dira ordainduko.

## Erreakzioak

Berrordainketak zeresan handia sortu du herritarrengan, eta asko agertu dira lege dekretu horren kontra. EH Bilduk salatu du EAJk eta Eusko Jaurlaritzak euskal gizarteari «huts» egin diola, eta «PPren nahiei» men egin izana leporatu die. PSE-EEK Espainiako dekretuaren kontra gehiago borrokatu ez izana egotzi dio Jon Darpon Jaurlaritzako Osasun sailburuari. Darponek «jarrera otzana» erakutsi duela nabarmendu du LABek, eta, neurri horrez gain, 417 botikei finantzaketa kendu zaiela gogorarazi du. Sindikatuek ere berrordainketa salatu dute. ELAk, bestalde, berrordainketak herritarren bizi-kalitateari eta osasunari eragingo diola uste du, eta batik bat, errentarik larrienak dituztenak igarriko dituztela gehien ondorioak. Berrordainketari esker, 16 eta 20 milioi euro artean bilduko direla aurreikusi dute, baina ELAren iritziz, badira diru kopuru hori biltzeko beste bide batzuk, herritarrei zuzenean eragin gabe.

## BOTIKENGATIK ORDAINDU BEHARREKOA

	ERRENTA	MUGA
<b>Pentsiodunak (botiken %10)</b>	< 18.000 € 18.000 - 100.000 €	8,14 €/hilabete 18,32 €/hilabete
<b>Pentsiodunak (botiken %60)</b>	> 100.000 €	61,08 €/hilabete
<b>Aktiboak (botiken %40)</b>	< 18.000 €	
<b>Aktiboak (botiken %50)</b>	18.000 € - 100.000 €	
<b>Aktiboak (botiken %60)</b>	> 100.000 €	

Astelehenetik aurrera norberaren errentaren arabera ordaindu beharko dira botikak. Pentsiodunek botiken %10 eta %60 artean ordainduko dute (lehen ez zuten ezer ordaintzen), baina hilabeteko gehiezez diru kopuru jakin bat ordainduko dute. Langile aktiboek botiken %40 eta %60 artean ordainduko dute (lehen %40 ordaintzen zen).

## Kale inkesta

### ZER IRUDITZEN ZAIZU BERRORDAINKETA?

#### RICARDO SANCHEZ

Langile aktiboa



Gaizki iruditzen zait. Orain arte botikak doan zituztenek aurre-rantzean botiken %10 ordaindu beharko dute. Ez dago eskubiderik. Berriz ere aberatsen alde hartutako neurria da, gutxien daukana estutzeko neurria, alegia.

#### AGURTZABE BIKUÑA

Langile aktiboa



Gehiegizkoa dela uste dut. Dena kobratu nahi digute, eta dena garestitzen dute. Agintarientzako diru gehiago, baina guretzako gero eta gutxiago. Agian oker egongo naiz, baina ez dut uste neurri honen ezer konponduko denik.

#### JOSEBA PANIZO

Langabetua



Ondo, ez. Nik gaixotasun kronikoa daukat eta egunero pilula bat hartzen dut. Ez dut uste asko eragingo didanik, baina egunear hamar pilula hartzen dituenak seguru igarriko duela. Neurri gogorregiak dira. Ez dagoen lekutik atera nahi dute dirua.

#### IRENE MAIZTEGI

Jubilatua



Ez dakit ba zer esan! Gu jubilatuta gaude, eta zer emango dugu ba? Ez da asko izango, gutxi daukagu-eta! Estutzen ari dira, baina agian krisi egoera honetatik irteten lagunduko du. Dena doa gora, eta pentsioa geldirik!

#### JON ASTIAZARAN

Langile aktiboa



Uztailean martxan jarriko dutela diote, baina nire amak urtariletik ordaintzen ditu errezetak! Gaizki iruditzen zait, lehen ere nahikoa ordaintzen dugu-eta! Honek ez gaitu krisialditik aterako. Bankuei emateko dirua izango da.

#### AMERICO LOPES

Jubilatua



Oso gaizki iruditzen zait. Ni jubilatuta nago, eta pertsonalki eragingo dit lege berri honek. Ez dut uste neurri honek estatua zulotik aterako duenik, eta honen aurretik beste neurri batzuk hartu behar liratekeela uste dut.



## ANDER ARRILLAGA YUDEGO Botikaria

### “Jubilatuek igarriko dute gehien berrordainketa”

#### **Zein aldaketa ekarriko ditu berrordainketak?**

Hemendik aurrera denek ordaindu behar dituzte botikak. Hori da oinarri-oinarrian berrordainketak ekarriko duen aldaketarik nabarmenena.

#### **Zeren arabera ezarriko dira bizilagun bakoitzak ordaindu beharreko kopuruak?**

Norberaren errentaren arabera kalkulatu da bakoitzak ordaindu beharrekoa. Ordenagailuak aldatu ditugu, eta informatika programa berri baten bidez, Osasun Ministerioarekin eta Ogasun Sailarekin konektatuta gaude, beraz, bezeroaren txartela sartzerakoan programak berak esango dit bezero horrek zenbat ordaindu behar duen.

#### **Nori eragingo dio gehien lege dekretu berri honek?**

Jubilatuek igarriko dute gehien berrordainketa, izan ere, lehen botika guztiak doan jasotzen zituzten eta orain ordaindu egin beharko dituzte. Dena dela, ez dute erosten duten guztia ordaindu beharko. Bakoitzak daukan errentaren arabera, mugak egongo dira, eta muga hori gainditzeko dutenean, ez zaie gehiago kobratuko.

#### **Nola kontrolatuko duzue bezero bakoitza mugara iritsi dela?**

Osakidetzako txartelaren bidez egingo dugu kontrola. Uztailaren 1etik aurrera ezinbestekoa izango da errezetarekin batera Osakidetzako txartela erakustea. Txartelaren banda magnetikoaren bidez sartuko ditugu datu guztiak ordenagailuan eta han agertuko zaigu bezero horrek ordaindu duen guztia. Oso garrantzitsua izango da bezeroentzako bereziki txartela erakustea, horri esker jakingo baitugu hi-

labetean ordaindu beharreko muga gainditu duten ala ez.

#### **Zenbatekoa da hilean ordaindu beharreko muga hori?**

Gure bezeroen artean bi multzo handi ditugu: jubilatuak eta langile aktiboak. Jubilatuaren kasuan, botiken %10 ordainduko dute, eta errentaren arabera desberdina izango da bakoitzaren muga. Urtean 18.000 eurotik behera irabazten dutenek 8,14 euro ordainduko dituzte gehienez hilabetean, eta 100.000 eurora arteko errenta duenak, aldez, 18,32 euroko muga izango du. Hortik gorako errenta dutenen kasuan, botiken %60 ordaindu beharko dute, 61,08 euroko mugarekin. Langile aktiboen kasuan desberdina da. Orain arte botiken %40 ordaintzen zuten, baina salbuespen batzuk baziren: botika oso garestiak zirenean edo gaixo kronikoen kasuan %10 ordaintzen zen, baina 4,20 euroko mugarekin. Hori mantendu egingo dute, baina, orain, errentaren arabera langile aktiboek botiken %40, %50 edo %60 ordaindu beharko dute.

#### **Neurri horrekin ez al da datuen babeserako legea urratzen?**

Ez dut uste. Gutxi gorabehera jakingo dugu bezero bakoitzaren errenta zein kopururen artean dagoen, baina horrek ez du esan nahi bezero bakoitzaren soldata zein den jakingo dugunik.

#### **Entzun izan dugu gaixo batzuk behar baino botika gehiago eramaten zutela etxera. Berrordainketarekin gehiegizko kontsumo hori kontrolatuko dela uste duzu?**

Izan daiteke. Guk hemen ikusten dugu jende askok ekartzen dizkigula erabili gabeko botikak iraungita, eta horrek esan nahi du alferrik eraman dituela, seguruenik doan zirelako. Egoera hori aldatu egingo da, baina lege dekretu berri honen helburua ez da hori. Bakoitzak behar duena kontsumitzea ekarriko du, baina helburua beste bat da.

#### **Osasun Saila ekonomikoki bideragarriago egiteko hartutako neurria dela esan du Espainiako Gobernuak. Ondo hartutako neurria dela iruditzen zaizu?**

Egoera ez da konponduko, baina Osasun

Saila osasuntsuago egoten lagunduko dela uste dut. Lehen botiken gastu gehiena bere gain hartzen zuen, eta orain parte bat behintzat bezeroek ordainduko dute.

#### **Zuen bezeroek zer diote egoera berri honi buruz?**

Komunikabideen bidez gehienek bazekiten Espainiako beste herrialde askotan orain dela urtebete hasi zirela botikak ordaintzen, eta lehenago edo beranduago hona ere iritsiko zela espero zuten. Larrituak jubilatuak daude, bereziki botika asko kontsumitzen dutenak. Baina hileroko muga hori azaldu diegu eta lasaitu direla esango nuke. Protesta egiten dute, baina ez daukagu besterik.

#### **Orain dela urtebete inguru 456 botika kendu zituzten Gizarte Segurantzatik. Zein motako botikak izan ziren?**

Ministroak esan zuen bezala, larritasun txikiko gaixotasunentzako botikak izan ziren. Eztula, katarroa, laxanteak, begirako tantak... Larritasun txikikoak bere esanetan, baina kontsulta medikoetan ematen diren botiken gehiengo mota horretakoa izan ohi da. Baina beno, berak erabaki zuen, eta onartu egin behar dugu.

#### **Sendagileek orain botika orokorrak eman behar dituzte, markak alde batera lagata.**

Bai, hala da. Sendagileak botikaren printzipio aktiboa errezetatu behar du, hau da, botikaren substantzia. Gaixoa errezeta horrekin botikara etortzen denean, botika horren generikoa existitzen bada, derrigorrez hori eman behar diogu, eta bestela, markakoa. Bezeroak hasieran ez zeuden pozik, baina ohitu dira. Zer erremedio!

#### **Aldaketa askotxo eman dira azkenaldian Osasun alorrean. Ez zaizu iruditzen honek guztiak Osasun Sistema pribaturako bidea emango duenik?**

Ez zait iruditzen. Egia da murrizketa handiak jasaten ari dela Osasun Saila, eta asko estutzen ari dira, baina ez dut uste Osasun Saila pribatizatuko denik. Neurriak hartu behar dira, baina nire ustez, Osasun Saila horrenbeste estutu aurretik, beste neurri batzuk hartu beharko lirakeke.



## Erretratu zaharra



1969

Aste honetako erretratu zaharra Txomin Mujikak bidali du BARRENEKO erredakziora. 1969. urtean ateratakoa da. Garai hartan **Ricardo Gorriti, Jon Arrieta eta Txomin Mujikak** osatzen zuten Elgoibarko txistulari banda, eta jaialdi askotan parte hartzen zuten. Argazki hau Errosario kalean aterata dago, Baltasar elkartetik frontoi alderako bidean. Jende asko jartzen zuten dantzan, eta erretratu honetan ere dantzari asko ageri dira txistularien inguruan. Horien artean **Itziar Agirregomezkorta** ikusten da argi-argi txistulariei segika, eta kalejirari begira ageri den neska hirukote horretako bat **Mertxe Fernandez** da.



OROIMENEZKO MEZA

## IÑAKI ARRIETA BARRENETXEA


*Vinarosen hil zen 2013ko ekainaren 18an, 88 urte zituela.*

*Gure ondotik joan zara,*

*baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan*

*Familia*

*Bere oroimenezko meza **zapatuan, ekainaren 29an, izango da arratsaldeko 19:00etan** Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*



## Kalegoen plazan jokatuko dituzte San Bartolome eguneko profesionalen pilota partidak

1751n eraiki zuten frontoia, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko zaharrenetarikoa da

**B**errikuntzak izango dira aurtengo San Bartolome jaietan, eta horietako bat pilota partiden lekualdaketa izango da. Ikastolako frontoitik aterako dituzte San Bartolome eguneko pilota partidak, eta Kalegoen plazan jokatuko dituzte. Asegarce eta Aspe pilota enpresekin berba egin dutela azaldu du Alfredo Etxeberria alkateak, eta San Bartolome egunean jokatu beharreko partidak Kalegoeneko frontoi zaharrean jokatzeko ideia gustatu zaiela esan du alkateak. Alabaina, zenbait zehaztapen negoziatzekotan direla zehaztu du. Besteak beste, sarreren kontua argitu behar dute. Udaren asmoa da 300 bat lagunentzako eserlekuak jartzea, eta horietan esertzeko, sarrera ordaindu beharko da. Aldiz, partidak zutik ikusteko ez da ordaindu beharrik egongo. Halere, xehetasun guztiak lotu gabe daudela ohartarazi du Etxeberriak. Partidak jokatu dituzten pilotari profesionalak enpresa batekoak edo bestekoak izango diren, esaterako, erabaki gabe dago artean. Jaialdi berean bi enpresetako pilotariak aritzeko aukera aztertzen ere badihardute.

1751n eraiki zuten Kalegoen plazako frontoia, eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ez da egundaino Elgoibarkoa baino frontoi zaharrago baten eraikuntzari buruzko idatzirik aurkitu. 1963an hartu zuen gaur egun daukan itxura. 1963an ospatu zen Gontzagako



*Goiko argazkiko irudia erreplikatu nahi dute San Bartolome Egunean.*

San Luis egunerako amaitu zituzten berritze-lanak. Ezker-horma luzatu egin zuten, eta gaur egun ikus dezakegun moduan geratu zen. 262 urte daramatza frontoiak leku berean.

### Amaitu da Lagunak Pilota Txapelketa



Joan zen astean jokatu zituzten Lagunak Pilota Txapelketako finalak Kalegoen plazan. Benjamin mailako finalean, Unai Sanchezek 18-17 irabazi zion Harkaitz Maiorari. Alebinetan, berriz, Danel Zubizarretak eta Julen Urruzolak neurtu zituzten indarrak, eta Urruzola izan zen nagusi, 18-11ko emaitzarekin. Argazkian ageri dira txapelketan parte hartu duten mutikoak.

### Piriniotara irteera antolatu du Morkaiko Mendizale Elkarteak sanferminetarako

Sanferminetarako mendirako plana egin du Morkaikok. Uztailaren 6an, 5:30ean abiatuko dira Lizarrarantz, autobusez. Selva de Ozarara joango dira, han Guarizanko mendi-bidea hartu (GR-11) eta Aguas Tuertasera joateko. Escale gaineratik pasatu ondoren, Ibon de Estanesera joango dira, eta hara iritsitakoan, GR-11 alde batera laga eta Sarrios bailarantz hartuko dute. Handik Vernera igoko dira, eta behin hara iritsita, bi aukera izango dituzte: Lioviella eta Cupula de Secus mendi gailurrak egin edo behera segi. Lizarrako aterpean igaroko dute hilaren 6ko gaua. Zortzi bat orduko ibilaldia izango da. Biharamunean, Foraton lepora igoko dira eta Bisaurin tontorra ere egingo dute. Handik Gabarditorantz hartuko dute, eta Santanako Zubian zain izango dute bueltarako autobusa. 7 ordu pasako ibilbidea da.

Morkaikoko bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 56 (prezioan autobusa, zapatuko afaria eta loa, eta domekako gosaria sartzen dira). Ekainaren 27a da izena emateko azken eguna, baina komeni da lehenbailehen egitea, antolatzaileek jakinarazi dutelako 25 lagunentzako lekua egongo dela bakarrik.

# Gaur iluntzean jokatuko dute Elgoibarren Nahaste Borraste proba herrikoia

Iñigo Lariz elgoibartarrak irabazi du azken hiru urteetan eta berak du errekorra

**G**aur jokatuko da Nahaste Borraste proba herrikoia, 19:00etatik aurrera. Kimetz elkarteak antolatzen du urtero proba hau, eta 16 urtez gorako edonork parte hartu dezake. Azkeneko hiru urteetan Iñigo Larizek irabazi du, eta berea da errekorra da ere (18:01) [aurten ez da ariko].

Nahaste Borrasteko parte hartzaileek hiru probatan lehiatu behar izaten dute. Hasteko, zazpi kilometro inguru egin behar izaten dituzte bizikletan, eta ondoren, Kalegoen plazan 25 kiloko zakua bizkarrean hartu eta 400 metro egin behar izaten dituzte korrika, San Bartolome eta Errosario kaleetan barrena. Azkenik, 1.500 metroko ibilbidea osatu beharko dute antxitxika. Izenemateak plazan bertan egin behar dira, lasterketa hasi aurretioxan.



## Gizonezkoak eta emakumezkoak elkarrekin aritu ziren zapatuan Mendaron, 800 kiloko harriari tiraka



Ikusmin handia sortu zuen zapatuan Mendaron antolatu zuten giza-proba erakustaldiak. Hiru saio egin zituzten guztira. Kontzezio eguneko jaien harira egin zuten saioan lortu zuten errekorra ontzen saiatu zen gizonezkoen taldea, baina 49 plaza egin zituzten, orduan baino bi gutxiago. Hala ere, sorpresarik ere izan zen. Saio horren aurretik, bost emakumez eta hiru gizonez osatutako taldeak bost minutuko erakustaldi bat egin zuen, 800 kiloko harriarekin eta zazpi plaza egin zituzten [Txapelketetan 470-500 kilo bueltako harria erabiltzen dute emakumezkoek]. Bukieran bost minutuko beste saio bat egin zuten, eta bi plaza gehiago egin zituzten: bederatzia. Proban aritu ziren emakumezkoek oso gustura jardun zutela aitortu dute, eta jarraitzeko gogoia ere agertu dute. Talde bat osatzeko adina batu dira dagoeneko, eta neurrirako harria ere eskatua dutela aipatu dute.

Gizonek txapelketako proba dute zapatuan, Orion. Bigarren kanporaketa uztailaren 13an jokatuko dute, Mendaron.

## Karate saioa, Kerman Morenoren omenez

Luis Agirregomezkorta senseiak karatean arnasa hartzeko moduari buruzko mintegia eskaini zuen ekainaren 15ean, Olaizaga kiroldegiko dojoan. Mintegian Kerman Moreno zena oroitu zuten, bera ere karatean ibiltzen zelako, eta ikasleek eskerrak eman nahi izan zizkioten "lagun ona" zelako. Kermanek gerriko beltza zeukan. Ekitaldian izan ziren Kermanen alarguna, arreba eta ilobak. Mintegiaren ostean denek elkarrekin bazkaldu zuten.





## Gaurtik hasita domekara bitartean ospatuko dituzte San Pedro jaiak Idotorbe auzoan

Berrikuntzen artean, paella jana antolatu dute domekarako

**B**ihar, ekainak 29, izango da San Pedro Eguna, eta gaur bertan hasiko dituzte jaiak Idotorbe auzoan. 19:00etan emango diote hasiera egitarauari, eta domekara arte izango da zertaz gozatu. Auzotarren afaria egingo dute gaur gauean, eta ondoren mus txapelketa jokatu dute. Bihar, goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak auzoan, eta hurrengo eguneko goizaldera arte luzatuko da eguna, dantzaldi eta txokolate janarekin. Horrez gain, Euskadiko Crosscountry moto txapelketa jokatu dute bihar Idotorbeko berdeguneetan. Gaztela Leongo, Euskal Herriko eta Asturiasko 90 bat gidarik hartuko dute parte, eta tartean, Aitor Osoro elgoibartarrak.

Domekan, bestalde, Haritz dantza taldekoen emanaldia eta idi probak izango dira, aukeran. Baina berrikuntzen artean, paella jan herrikoia aipatu behar da. San Pedro elkartean egingo dute bost euroren truke, eta edozein herritarrek parte hartu dezake. Tiketak aurrez erosi daitezke, elkartean bertan. Asteburuko egitarau osoa agendan irakurri dezakezue.



### 400 euro emango ditu Udalak sanbartolomeetarako txaranga sortzeagatik



San Bartolome festetan koadrilen parte-hartzea sustatze aldera, txaranga talde txikiak sortzeko deialdia egin du Udalak, eta izena ematen duten taldeek 400 euro jasoko dituzte trukean, betiere eskatutako baldintzak betetzen badituzte. Zazpi edo zortzi elgoibartarrez osatutako taldea izan beharko da, eta gutxienez, lau musika instrumentu desberdin jo beharko dituzte. Gainera, partaide guztiak 16 urtetik gorakoak izan beharko dira. Horrez gain, egun eta ordu jakin batzuetan irten beharko dira kalera, eta kalejiran egingo duten ibilbidea ere Udalak zehaztuko du. Kultura Sailean eman daiteke izena (943 742 158).

### Establezimenduetako errotulo nagusiak euskaraz jartzeko diru-laguntzak

Establezimendua identifikatzeko errotulo nagusia euskara hutsean jartzen duen herritarrari errotuluaren kostearen % 40ko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Udalak, gehienezko kopurua 210 eurokoa izanik. Diru-laguntza jasotzeko beharrezkoa izango da euskaraz ondo idatzita egotea eta hori Euskara Zerbitzuak ziurtatuko du. Errotuluan izena edo izen-abizenak soilik agertzen badira, Udalak ez du diru-laguntzarik emango. Elgoibarko Udalak, diru-laguntza hauen bidez, establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzera animatu nahi ditu herritarrak.

Zalantzarik izanez gero, edota errotulua euskaraz jartzeko laguntzarik nahi izanez gero, deitu Udaleko Euskara Zerbitzuko 943 744 366 telefonora, mezu bat bidali [euskara@elgoibar.net](mailto:euskara@elgoibar.net) helbidera edota Euskara Sailak Kultur Etxeko lehenengo pisuan duen bulegora joan.

Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea urriaren 31n bukatzen da.

# Gaur zortzi hasiko da aire libreko zinemaldia, 'Lo imposible' filmarekin

Uztailaren 30a arte hamar film emango dituzte

**D**atorren barixakuan, uztailaren 5ean, hasiko da Elgoibarren aire libreko zinemaldia, Juan Antonio Bayonak zuzendutako *Lo imposible* filmarekin. Uztailaren 30a arte, hamar film ikusteko aukera izango da, Kalegoen plazan. Barixaku eta zapatu iluntzetan izango dira saioak, eta emanaldi egunean euria egiten duen egunetan, proiektzioak atzeratu egingo dituzte. Hala, barixakueta-ko filma domekara pasatuko dute euria egiten duenean, eta zapatukoa, astelehenera edo hurrengo egunera. Pelikula guztiak 22:30ean hasiko dira.

- **Uztailak 5, barixakua:** 'Lo imposible'
- **Uztailak 6, zapatua:** 'La vida de Pi'
- **Uztailak 12, barixakua:** 'Bestias del sur salvajes'
- **Uztailak 13, zapatua:** 'Bypass' (euskaraz)
- **Uztailak 19, barixakua:** 'El gran Gatsby'
- **Uztailak 20, zapatua:** 'Los pinguinos del Sr. Popper'
- **Uztailak 26, barixakua:** 'Los amantes pasajeros'
- **Uztailak 27, zapatua:** 'Mision imposible: protocolo fantasma'
- **Uztailak 28, igandea:** 'Ice Age 4'
- **Uztailak 30, martitzena:** 'Las aventuras de Tadeo Jones'

## Elgoibarko Udal Musika Bandakoak Guardiako jaietan izan dira asteburuan

Elgoibarko Udal Musika Bandakoak Guardian, Araban, izan ziren asteburuan. Sanjoanak ospatzen dituzte Guardian ere, eta hango Udalak gonbidatuta joan ziren. Goizean, herriko kaleak girotzen ibili ziren, kalejiran, eta eguerdian, kontzertua eskaini zuten plazan. Elgoibartarrak ere izan zituzten entzule, eta han bizitakoarekin oso gustura itzuli direla nabarmendu dute musikariek eurek.



## Dantza garaikidea ikasten ari direnen erakustaldia, Mendaron

Beste zapatu batez, dantzak eta musikak hartuko dute Mendaroko frontoia. Bihar, dantza garaikidea ikasten dihardutenen txanda izango da (22:00etan).

## 70 urtez gorakoentzako bazkaria Mendaron, Santa Ana jaien barruan

Santanetan ohi legez, 70 urtez gorakoak Aizpe elkartean batuko dira bazkaltzeko. Mendaroko Udalak eta Aizpeko zuzendaritzak elkarlanean antolatzen dute bazkari hau, eta uztailaren 15era arte dago izena emateko aukera. Bazkaria uztailaren 28an izango da, 14:00etan. Interesatuak Aizpen, Lagun Betikoak tabernan, Kutxan edo Roteta dendan eman behar dute izena.

## Santanetako danborradarako entseguak

Badatoz santanak ere, eta Mendaroko Udalak jakinarazi du uztailaren 1ean hasiko dituztela danborrada nagusiko entseguak. Uztailaren 1ean, 3an, 8an, 10ean, 15ean eta 17an izango dira entseguak, ikastolan, 21:00ean. Danborrada nagusia uztailaren 25ean izango da.

## 2014ko egutegirako argazki lehiaketa

2014ko egutegia osatzeko lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak, Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenentzat. Argazki digitalak izan beharko dira, formatu horizontalean egindakoak, eta Elgoibari egin beharko diote erreferentzia. Partaide bakoitzak gehienez sei lan aurkeztu ahal izango ditu, urriaren 18rako. Udalak eta Ongarrik hamabi argazki onenak aukeratuko dituzte eta sarituek 70 eurona jasoko dituzte.

**LANA.....**

*Eskaera*

- Ingeles eskolak ematen ditut, etxez-etxe.  
☎ 680 319 002 / 943 744 062
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbizari lanetarako edo garbiketara lanetarako prest.  
☎ 678 858 210
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbizari lanetarako edo garbiketara lanetarako prest. Esperientzia handia. ☎ 675 765 376
- Eskola partikularrak ematen dira uztailen. Matematika, kontabilitatea, ekonomia... DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa mailetan.  
☎ 666 042 710
- Mutil gaztea udan txakurrak paseatzeko prest.  
☎ 634 134 562
- Mutil gaztea lanerako prest. Nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, banatzaile lanetarako edo iturgintzarako eta erreformetarako prest.  
☎ 682 518 370
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 649 086 057
- Gizonezkoa lanerako prest. Baseri lanetan esperientzia handia. ☎ 943 748 141
- Gizonezkoa zerbizari lanetarako prest.  
☎ 692 332 871
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 686 052 082
- Nagusiak zaintzen esperientzia handia dut. Erreferentzia onak. ☎ 616 328 060
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 605 720 298
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. ☎ 654 416 179

- Lehen Hezkuntzako klase partikularrak ematen ditut, Mendaron. ☎ 666 614 519 (Oihana)
- Neska euskalduna uztailen umeak zaintzeko prest. ☎ 617 905 402
- Emakumea lanerako prest. Garbiketarako egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest.  
☎ 608 474 923
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, arratsalde edo gauetz. Esperientzia handia. Etxeko lanak ere egingo nituzke. ☎ 682 255 834
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko, zerbizari lanetarako edo garbiketara lanetarako prest.  
☎ 638 884 104
- Gizonezkoa nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ 686 077 316
- Emakumea arratsalde edo gauetz lan egiteko prest. ☎ 680 121 252
- Gizonezkoa lan bila: kamioi gidari edo banatzaile lanetarako prest. Gidabaimen guztiak ditut.  
☎ 671 368 324
- Neska asteburuetan lan egiteko prest. Nagusiak zein umeak zaintzeko, edo garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko prest. ☎ 662 267 141

*Eskaera*

- Partikularrak emateko pertsona euskalduna behar dugu Mendaron, DBH1eko ikasle batentzako. DBH4ko ikasle bati ingeles eskolak emateko pertsona ere behar da. ☎ 695 730 442
- Umeak goizez ikastolara eramateko pertsona euskalduna behar da.  
☎ 636 047 028

**ETXEBIZITZAK.....**

- Benidorm: etxea alokairuan, hondartzatik hasita, bigarren ilaran.  
☎ 943 740 628 / 650 557 077
- Bi laguntzako logela edo pisua hartuko gure ke alokairuan. ☎ 688 467 147
- Pisua hartuko nuke alokairuan.  
☎ 686 052 084
- Pisua hartuko nuke alokairuan, 3 logelakoa.  
☎ 671 289 584
- Pisua alokatzen dut Urazandin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, jangela eta egongela. Guztiz berriua. Berokuntza elektrikoarekin.  
☎ 943 743 068 / 677 463 874
- Logela alokatzen dut Elgoibar erdigunean. Etxe guztia erabiltzeko aukera: komuna, sukaldea...  
☎ 672 382 466

**LOKALAK.....**

- Lokal independentea alokatzen dut Meka eta Institututik gertu. Lokal sozial edo elkarte gastronomiko batentzako oso egokia. Aparkamentu handia, legez. Aukera handiko lokala, arazorik gabekoa. Merke.  
☎ 660 969 679

**BESTELAKOAK.....**

- Logela klasikoa salgai, egoera onean. Bi ohe (90x1,96cm), somierra eta koltxoia barne, mahaitxo ere bai. 600 euro.  
☎ 659 986 506
- Belarritako bat topatu dut Ikastolako aldapan. Zilar kolorekoa da, aro formakoa. Udaltzaingoa lagatu.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



Ez dago ezagutza handirik komunitate bateko presidentek dituen eskubide eta betebeharren inguruan. Bere funtzionak noraino iristen diren eta finken administrariarekin izan beharreko harremanaren inguruan ezer gutxi dakigu.

Etxebizitza edo lokal baten jabea bakarrik izenda daiteke presidente. Baldintza horiek betetzen ez dituen norbait izendatuko balitz presidente, haren agintaldian egindako ekintza guztiek ez lukete baliorik izango, ezta etxe jabeen batzordean onartutako akordioek ere.

Ondo bereiztu behar da presidentearen erantzukizun zibila gainerako etxe jabeen komunitatearenetik, komunitateari berari eragin diezazkiokeen kalteengatik, eta baita jabe indibidualengandik ere, bere karguari dagozkion betebeharrak beteko ez balitu ere. Batzordearen baimenik gabe egindakoez, bere arduratik haratago hartutako erabakiez, eta bere ardua bete ez izanaren ondorioz gertatutakoez ari gara. Erantzukizun penala ere izan dezakete presidentek hartutako erabaki batzuek, Zigor Kodean jasotakoaren kontra hartutakoak badira.

**Gomendioa: Presidentearen eta administrariaren artean harreman ona egon behar da, eta egiten duten guztian ondo koordinatuta egon behar dute. Etxe jabeen batzordeari duten informazio guztia komunikarazi behar diete, haiek erabakiak har ditzaten.**

---

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Centro Vasco de Estudios de Administración de Empresas  
Sociedad Vasca de Administradores  
Lizentziatua





• Zorionak, **Olhane**, familiakoen partez zure bederatzigarren urtebetetzean.



• Zorionak, **Gorane**, Azkenean iritsi da 7 urte betetzeko eguna! Muxu handi bat, familiakoen, eta bereziki, lkerren partez.



• Zorionak, **Amanda**, uztailaren 1ean 10 urte egiten dituzulako. Muxu handi bat aita, ama eta bereziki Jairoren partez.



• Zorionak, **Nora**, gaur 6 urte betetzen dituzulako. Ondo-ondo pasa eta patxo handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak **gure etxeko printzesari**, bere bosgarren urtebetetzean. Patxo handi bat familiakoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **bikotel** Oso ondo pasatu zuen ezkontza egunean, etxekoan, lanekoan eta lagunen partez.



• Zorionak, **printzesa**, atzo 8 urte bete zenituelako. Oso ondo pasa zure egunean.



**Uztaileko  
asteleheneretan  
ekintzak  
ludotekan,  
15:30etik 17:30era**



**Uztailaren 11n  
Arcachoneko  
akuaparkera goaz  
egunpasa! Eman izena  
uztailaren 2a  
baino lehen.**

## 2013-2014 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA



Elgoibar Arreiture BHI  
Arregitorre 2  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: 013431aa@hezkuntza.net  
www.elgoibarbhi.net

**2013-14 ikasturtean Elgoibar Arreiturren DBH edo batxilerra ikasi nahi duen ororentzat matrikula epea ireki da: ekainaren 20tik uztailaren 5era. Egun horietan bulegoan izango gaituzu goizeko 9:00etatik 13:00etara**

## 28 *barixakua*

### Hezkuntza

19:00 Diploma banaketa  
Elgoibar BH Institutuko  
diplomak banatuko dituzte,  
Herriko Antzokian.

### Kirola

19:00 Nahaste Borraste  
Kimetz elkarteak antolatuta,  
Kalegoen plazan hasiko da  
proba.

### Gastronomia

22:00 Pintxo lehiaketa  
Gaur izango da pintxoak  
dastatzeko azken eguna.

## 29 *zapatua*

### Azken zapatuko feria

9:00 Baserriko produktuen  
salmenta  
Kalebarren plazan.  
11:00 Txosna  
Mintxeta atletismo taldekoek  
jarriko dute.  
12:00 Kale Kantariak  
12:30 Entsalada egiteko tailerra  
12:30 Ganadu erakusketa  
Aita Agirre plazan.

## 5 *barixakua*

### San Fermin

10:30 San Fermin Txiki  
San Bartolome eta Errosario  
kaleetan zehar, Atxutxiamaikak  
antolatuta.

### Kafea pastekin

21:30 Bideo Forum  
Haizeak antolatuta, *Maktub*  
filma eskainiko dute.

## SAN PEDRO JAIK 2013 Idotorbe auzoan

### 28 BARIXAKUA

19:00 Jaien hasiera  
21:00 Lagunarteko afaria  
San Pedro elkarte  
23:00 Mus txapelketa

### 29 ZAPATUA

*San Pedro eguna*  
11:00 Prozesioa eta  
meza nagusia  
12:30 Pilota partidak.  
Lagunak elkarteak  
antolatuta  
14:00 Auzotarren eta  
jubilatuen bazkaria  
16:30 Moto txapelketako  
entrenamenduak  
17:30 Euskadiko Cross  
Country txapelketa  
19:00 Sari banaketa  
Egun osoan, trikitilariak:  
Ansorregi eta Larrañaga.  
17:00 Bolo txapelketa  
Emakumezkoentzat eta

gizonezkoentzat.

20:00 Triki kalejira  
21:00 Lagunarteko afaria  
San Pedro jatetxean.  
22:30 Gaupasa  
Ansorregi eta Larrañaga  
trikitilariekin.  
Goizaldean, txokolatada

### 30 DOMEKA

10:30 Igandeko meza  
Ondoren, txalaparta  
Ttakun bikotearekin. Euskal  
dantzak, Haritz dantza  
taldearekin.  
Segidan, salda eta txorizoa  
San Pedro elkarteak  
eskainita.  
14:00 Paella jan herrikoa  
16:30 Umeentzako jolasak  
eta bolo txapelketa  
17:30 Idi demak  
Egun osoan, trikitilariak  
Baltzola anaiak.

## ZWEA



'Lo imposible'  
5, barixakua: 22:30  
(Kalegoen plazan)

Zuzendaria: J.A. Bayona. Espainia, 2012. 107 min. Drama.  
Aktoreak: Naomi Watts, Ewan McGregor, Tom Holland,  
Samuel Joslin. Maria eta Henry Tailandian dira hiru semeek  
neguko oporrak pasatzen. Abenduaren 26an, hoteleko  
igerilekuan lasai-lasai daudela, itsasoak gora egin eta dena  
azpian harrapatuko du. Egoera horri aurre egin beharko  
diote. 2004an Tailandian gertatu zen tsunamian oinarritatu-  
tako benetako istorioa kontatzen du filmak.

### OKINDEGIA

30 domeka:  
EIZAGIRRE



### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

### GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

28 Zabaleta  
29 Barrenetxea  
30 Barrenetxea  
1 Ibañez  
2 Fernandez  
3 Etxeberria  
4 Fernandez  
5 Yudego

### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Yudego  
Garitaonandia  
Etxeberria  
Garitaonandia  
Yudego



# ZEZEN-BIDE



## AUTO ESKOLA

### INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN! IKASTARO TRINKOAK!



## ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

## 5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK

- Euskarazko eta gaztelerezko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR





# TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

## ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Txarangaren kalejira amaitu ondoren, 17:00etan, Sigmako aparkalekuan

### MENUA:

- \* Lehenengo platera: Pasta entsalada.
- \* Bigarren platera: Gixatua.
- \* Gazta tarta.
- \* Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura.

Izenematea Elgoibarko Izarraren bulegoan edo Internet bidez egin behar da ([www.elgoibarkoizarra.com](http://www.elgoibarkoizarra.com)). Izena emateko azken eguna uztailaren 19a.

19€

17€

Elgoibarko  
Izarrako  
bazkideak